

Uztaro aldizkariaren ehungarren zenbakiaren testuinguru akademikoaren gaineko gogoeta bat

Karmele Artetxe Sanchez
UEUko Historia Saileko kidea eta UPV/EHUko irakaslea

Euskarazko produkzioaren inguruan zenbait azterketa egin ondoren eta zenbait lan argitaratu ostean¹, eta bertan emandako datuen eta eskainitako iritzi ponderatuen eragina hain ezdeusa izan dela ikusirik, *Uztaro* aldizkariaren 100. zenbakiaren omenez, beste mota bateko testu bat prestatzea pentsatu dut. Hizkuntza gutxitu batean argitaratutako aldizkari zientifiko bat plazaratzearen aldeko apostuak ez duelako gutxiago merezi. Has gaitezen beraz.

Komunitate Zientifiko Euskalduna, eleaniztuna bada ere, eta goi-mailako zenbait komunikazio-esparrutan aritzen bada ere, euskaraz egiten den horretan pausatu nahi ditut nire gogoetak. Hasteko galderekin hasiko naiz: zergatik eta zertarako euskaraz aritu goi-mailako esparruan? Zergatik argitaratu artikulu bat euskaraz? Zertarako doktorego-tesia euskaraz prestatu? Iruditzen zait, gero eta «arrazoi» gutxiago daudela horretarako. Ibilbide akademikoa gero eta definituago dago, irizpideak zehatzagoak dira, eta gero eta zailagoa da arrakasta akademikoa (=egonkortasun laborala) lortzea ortodoxia akademikotik kanpo. Esate baterako euskaraz idatziz.

Behinola, bazen adreiluaren burbuila, baina hori ere, ezinezkoa zelako mantentzea, une batean despuztu zen. Bi esparru erabat diferente izan arren, gaur egun unibertsitatean, antzekoa gertatzen ari da. Adituei izugarrizko produkzio-tasa eskatzen zaie, eta haiek berdintsuak diren hainbat artikulu argitaratzen dituzte urte berean edota urterik urte. Eginez gero, saria segurua da. Horra burbuila akademikoa.

1. Ikus doktorego-tesia (*Komunitate Zientifiko Euskalduna. Azterketa historikoa eta bibliometrikoa*, 2010), eta hiru artikulu: «Euskararen azpi-instituzionalizazioa esparru akademikoan: datuak, galderak eta erronkak», *Jakin*, 207 (2015), 93-114; «Euskararen aurrerabidea zientzia eta goi mailako esparruan. Azterketa bibliometrikoa», *Cuadernos Sociológicos Vascos*, 28 (2011), 5-174; eta «Psikologiako artikuluen azterketa Uztaro aldizkaria oinarri harturik», *Uztaro*, 56 (2006), 31-50.

Burbuila handia, baina horma oso fin eta hauskorrak dituena, konplizitate-ariketa handiagoak edo txikiagoak praktikatu, denon artean airean mantentzen laguntzen duguna.

Eta mediokritateak mugarik ez duen esparru honetan, hau da, esparru akademikoan, kontraesan bezala betetako subertsioa praktikatu baino ez dago. Euskarak aukera hori ematen du. Edo ez. Izan ere, euskara bere baitan ez da subertsioa, are gehiago, batzuetan politikoki zuzenaren beste gai *mainstrain* bat gehiago bihurtu da.

Giro honetan, goi-mailako euskarazko produkzioa dugun unibertsitarioak, hau da, «arrazoi» objektiboetatik haratago, euskaraz idatzi eta argitaratzen dugunok, nahi dugulako egiten dugu. Nahi horren atzean egon litezke arrazoi ideologikoak. Dibertimendua ere egon liteke. Edo beste motibo batzuk. Nire kasuan esaterako, euskaraz lan egiteak eta idazteak, beste hizkuntzek oraindik eman ez didaten gozamenak ematen dit. Gozamenak handia. Eta horretan euskara subertsioa dela iruditzen zait. Harreman-sare zabala, irekia, lankidetzarako aukera ugari, proiektu oso interesgarrietan parte hartzeko aukera, erronka eta apustu handien alde lan egitea, modu diziplinarteko batean jardutea, idazten eta irakurtzen ikastea, eztabaidatzen ikastea, ikertzea, lan handia egitea eta berdinengandik aitortza zintzoa jasotzea... dena aldi berean baina ez modu desordenatu batean. Hori guztia ematen dit euskaraz aritzeak. Burbuila akademikoan ez dago horrelako esperientziak bizitzerik. Burbuilak produktibitate-tasa zoroak, aipu kopuru altuak, burokrasia handia, harreman interesatuak... behar ditu.

Uztaroren sorrera

Uztaro aldizkaria ez zen sortu burbuilaren testuinguru honetan. *Uztaro* Udako Euskal Unibertsitateak sortu zuen 1990. urtean Giza eta Gizarte Zientzietan buruzko artikuluak argitaratzeko. Urte horren bueltan, goi-mailako euskarazko beste zenbait aldizkari sortu ziren: *Bat* (Soziolinguistika klusterra), *Hegats* (EIE), eta UPV/EHUko Euskara Errektoreordetzak abian jarritako *Ekaia* eta *Tantak* aldizkariak. Guztira 5 aldizkari berri 1989-1990. urteen artean. Gerora beste batzuk (*Hizpide*, *Euskalingua*, *Eleria*, *Gogoa*, etab.) sortu baziren ere, orduan sortzen dira euskarazko lehen aldizkari unibertsitarioak. Ez ziren ezerezetik sortu, aurretik, 80ko hamarkadan eta aurretik ere, oso esperientzia interesgarriak ezagutu ziren, hala nola *Jakin*, *Elhuyar aldizkaria*, *Ele*, *Senez*, *Idatz&Mintz*. Horiek helduleku izan ziren 1989-1990 urteetako aldizkariok sortzeko.

UPV/EHUk 1990. urtean abian jarri zuen lehen euskara-plangintza, baina aurretik, fakultate eta unibertsitate-eskola batzuetan karrera batzuetan euskarazko irakasgaiak baziren, hala nola Zientzia Fakultatean edota Irakasle Eskolan. Hala ere, 1990. urtera arte, hau da, lehen hizkuntza-plangintza abian jarri ez zen arte, unibertsitatea ez zen sistematikotasun batekin aritu euskarazko eskaintza garatzen. Plangintza horren testuinguruan sortu ziren *Ekaia* eta *Tantak* aldizkariak. Kasualitatez, edo ez, horien atzean ibilitako pertsona batzuk UEUkideak ziren/dira. Eta *Uztaroren* ekimena sustatzen ibilitako batzuk, UPV/EHUkoak.

Gainiroki azaldutako testuinguru horretan sortu zen *Uztaro* aldizkaria. Hasieran proiektu xume bat izan zena. Lehenengo urteetan ez zen testuen euskarazko orrazketarik egiten, 90eko hamarkadaren erdialdean sistematizatu zen hori. Eta 2008. urtearen bueltan *Uztaro* aldizkari zientifikoen ohiko estandarretara egokitzeko zenbait hobekuntza burutu ziren. Diagnostikoa argia zen, *Uztarok*, egile euskaldunak erakartzeko, zein egile euskaldunen karrera akademikoan ekarpena egiteko, prozedurazko zenbait aldaketa gauzatu behar zituen. Esate baterako, ebaluazio itsua jakintza-arloko aditu bik eginda eta Erredakzio Kontseiluko kide baten ardurapean; Erredakzio Kontseiluaren indartzea eta Batzorde Zientifikoa eratzea, eta abar. Hala, 2010. urtean *Uztarok* betetzen zituen Latindex-ek zehaztutako 33 irizpideak.

Beldur ginen hala ere, bide horrek ez ote zuen aldizkaria itoko, lana areagotzen zuelako, ebaluazioa egiteko nahiko aditu ez zelako egongo, egileek ez zituztelako beren lanak hain erraz bidaliko... baina kontrakoa gertatu zen, egile berriak eta lan gehiago erakarri ziren. Itxaron-zerrenda ere bai! Horrekin guztiarekin beraz, aldizkari-proiektua indartu egin zen, sarea ireki, zabaldu eta indartu. Astiro, astiro, eta bertan parte hartu duten hainbat pertsonak egindako ekarpenari esker, aldizkari zientifiko erreferentziala bihurtu da Giza eta Gizarte Zientzien arloko Komunitate Zientifiko Euskaldunarentzat.

Erreferentziala bai, baina bakarra ez. Izan ere, komunitateak euskarazko goi-mailako komunikazio zientifikorako esparru oso bat behar du, izaera antzeko eta desberdineko aldizkari batekin baino gehiagorekin osatua. Zirkuitu bat, non leku batzuetan ideiak eta lanak kaleratzen diren, eta beste batzuetan eztabaidatuko edota jarraituko diren. Goi-mailako esparru hori euskal kulturgintzan aritzen diren pertsona eta erakundeek azken 40 urteotan eginiko lanari esker eratu ahal izan da.

Baina lorpen bakoitzaren atzean arrisku berriak sortzen dira. Izan ere, orain inoizko euskaldun unibertsitario gehien dagoen garaian, hau da, irakasle, ikertzaile, profesional zein unibertsitateko graduatuak, noiz eta orain, euskarazko artikuluen produkzioa ez aurrera ez atzera gelditu da. Gaur egungo burbuila akademikoa eta ebaluazio-agentzien irizpideak mehatxu bat dira euskarazko goi-mailako komunikazio-esparruarentzat. Ortodoxia argi dago, finkatuta dago eta unibertsitateek bedekintzen dute. Funtsean, eragin handiko erdal produkzio andana beharrezkoa da, nola halako arrakasta akademikoa erdietsi ahal izateko. Ibilbide horretan euskara onenean osagarria da, baina ez du akreditatzen pertsona baten ikerketa-espereziaririk edota produktibaterik. Horregatik eten da euskarazko produkzioaren hazkundera.

Galde daiteke, gaur eguneko testuinguruan, aldizkari zientifikoen irizpideak eta estandarrak beteko lituzkeen aldizkari proiektu berririk sortzeko gai oten den Komunitate Zientifiko Euskalduna. Ezinezkorik ez dago, baina zalantzaragarria da. Goi-mailako euskarazko azken aldizkaria, 2009. urtean plazaratu zen, hau da, orain 8 urte! Arkitekturari buruzko *Aldiri* aldizkaria izan zen. Sorrera eta sustatzaileak ezagututa, proiektuaren abiapuntua ez zen izan, curriculuma egitea. Gozamendua zuten buruan, ez besterik.

Mehatxuen aurrean, gozaten jarraitzeko aukera eman diezaguketen baliabideak sortu behar ditugu. Bat duela gutxi sortu da, Donostiako Protokoloa. Donostian, 2016ko abenduaren 17an aurkeztutako Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloak esaterako, 76. neurrian argi zehazten du: «4.2.2. Ebaluazio-agentzia eta -instituzioek ez dituzte Hizkuntza Gutxituan egindako ekarpen zientifikoak gutxiago baloratzen». Protokoloak 1996ko Bartzelonako Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala garatzen laguntzen duen tresna eraginkorra izan nahi du, Europako hizkuntza-berdintasunaren alde eta hizkuntza gutxituen garapena bermatzeko neurri zehatzak jasotzen dituelako. Protokoloa izanik, borondatezkoa da, eta borondate hori behar dugu aktibatu, bai pertsonengan, bai erakundeetan ere, eraldaketa posible egiteko, *Uztaro* moduko proiektuek segida luzea izan dezaten.